

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktuak funtziona dezan honako hauek dira kontuan izan eta zaindu behar ditugun arlo garrantzitsuenak:

Alde batetik, ezinbestekoa izango da lotura zuzena eta eraginkorra izatea alarmaren botoia eta ertzainaren artean, hori baita gure helburu nagusia; gure bezeroei, droga detektatzean laguntza zuzena eta azkarra ematea.

Beste aldetik, oso garrantzitsua izango da bakoitzak bere pultseraren erabilkortasuna zaintzea. Gure produktua 15 aldiz erabiltzean ez du berriz funtzionatuko eta beste bat erosi beharko da.

Produkzioaren aldetik, gure enpresak gure produktuaren funtzionamenduaren ekoizpenari emango dio garrantzia gure helburua bete dadin.

Azkenik, sortzen diren arazoak konpontzeko gai izango gara, plataforma teknologikoak kudeatu, mantendu eta sustatuko ditugu. Nahi izanez gero telefono zenbaki bat daukagu eta edozein arazo izanez gero telefono zenbakira deitu dezakete erabiltzaileek eta segituan jarriko ginateke harremanetan beraiekin arazoak konpontzeko.